2014-2015ean Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pediatria Zerbitzuan eta 2012-2013 urteetan Goierri - Urola Garaiko ESI n egindako esku-hartzeen ostean, 2015ean osasun-emaizetan giza faktorea gehitzearen inpaktua ebaluatzea zuzendutako ikerketa proiektu bati eman zitzaion hasiera, lunbalgiari buruzko asistentzia-ibilbide batean. Erabilitako metodologia zentro anitzeko saiakuntza klinikoarena izan da, irekia eta ausazkoa, lunbalgia akutuko joerak zirela eta 35 familia-medikuren kontsultetara jo zuten 262 pazienteren artean. Helburua komunikazio-trebetasunei eta mediku-pazientearen arteko harremanei (giza faktorea) buruzko prestakuntza espezifikoko baten inpaktua ebaluatzea zen gerriko mina duten pazienteen oinazearen kontrolean eta desgaitasunaren hobekuntzan.

- **Jakinsarea prestakuntza-plataforma**. Amaitu da prestakuntza-plataformaren garapena eta egin dira egin beharreko doikuntzak plataforma 2016an ezartzeko.

Diru-laguntzak profesionalen eta zerbitzu-erakundeen prestakuntzarako

2015ean, prestakuntzarako eta ezagutzaren zabalkunderako laguntzetarako 3 deialdi argitaratu dira:

- 1318/2015 Ebazpena, ekainaren 30ekoa, Osakidetza-EOZko zuzendari nagusiarena, langileen etengabeko prestakuntzako eta birziklapen profesionaleko ikasketak egiteko 2015eko ekitaldiari dagokion laguntza-programarako eskabideak aurkezteko deialdia ezartzen duena. 564 laguntza eman dira.
- 1287/2015 Ebazpena, ekainaren 26koa, Osakidetza-EOZko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-EOZko zerbitzu-erakundeei zuzendurik, bilera zientifikoak antolatzeko laguntzetarako deialdia egiten duena. Guztira 18 biltzar eta bilera zientifikori eman zaizkie diru-laguntzak.
- 2015eko apirilaren 22ko Ebazpena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena. Diru-laguntzaren zenbatekoa 532.933,71 € izan da, eta horrekin finantzatu dira Osakidetza zerbitzu-erakundeen prestakuntza-planak.

Lankidetza-hitzarmenak prestakuntzaren alorrean

- Lankidetza Hitzarmena **izenpetu da Osakidetza-EOZko zuzendari nagusiarena, langileen etengabeko prestakuntzako eta birziklapen profesionaleko ikasketak egiteko 2015eko ekitaldiari dagokion laguntza-programarako eskabideak aurkezteko deialdia ezartzen duena. 564 laguntza eman dira.**
«Osasuna, pertsonen konpromisoa» izenburuko programa 19 ikasturte osatu dute eta 1.350 ikasle hartu dute parte bertan.
- **Hezkuntza-kooperazio hitzarmena sinatu da Mondragon Unibertsitatea-Enpresagintza erakundearekin Enpresen administrazio- eta zuzendaritza-graduan.**
Hitzarmen horren indarrez, praktiketan hartu da gradu horretako ikasle bat.
- **Lankidetza ituna Osasun Sailarekin eta Deusto Business School Health erakundearekin Osasun Kudeaketako Masterrean.**
Ikasleak masterreko proiektua garatzen ari dira 18 zerbitzu-erakundetan.
- Lankidetza-ituna izenpetu da UGT sindikatuarekin prestakuntzaren alorrean.
- Lankidetza-ituna izenpetu da Erizaintzaren Prestakuntza eta Aurrerapenerako fundazioarekin (FAE fundazioa).

Irakaskuntza-zentroetako izen-emateak eta matrikulak berariazko programak egiteko

Osakidetzako profesionalen matrikulazioa kudeatu eta finantzatu da ondorengo berariazko prestakuntza-programetan:

- 57 profesional inskribatu dira adineko pertsonen hauskortasuna eta erorketak hautemateko eta maneiatzeko ikastaroan.
- 5 profesional inskribatu dira emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programan.
- 4 profesional inskribatu dira Kontratazio publikorako gidalerro berriak: berrikuntza nagusiak eta eragin praktikoak ikastarorako.
- 2 profesional inskribatu dira Depresioaren maneia pertsona helduarengan ikastaroan. Osasun Sistema Nazionaleko Praktika Klinikorako Gidaren Programako Praktika Klinikorako Gidan oinarritutako prestakuntza.
- 2 profesional inskribatu dira interpretazioko ikastaroan.
- Profesional bat inskribatu da Diru-laguntzak emateko eta izapidetzeko prozedurari buruzko ikastaroan.

Prestakuntzako Zerbitzu Korporatiboak gauzatutako beste jarduera batzuk

- **Parte hartu du** ondorengo organo eta batzordeetan:
 - Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua.
 - Osakidetza erakunde publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Prestakuntza Batzordea.
 - Bai Erakunde Zentralean eta bai Osasun Sailean, prestakuntzarako laguntza eskabideak baloratzeko batzordeetan.
- Lankidetza **Osasun Eskolarekin «Paziente Bizia»** proiektuan.
- Lankidetza Euskaliteko 5S Ebaluatzaileen Klubarekin.
- Lankidetza Ebaluatzaileen Klubarekin Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuko Ereduan.

Guk geuk ekoitzitako online ikastaroen katalogoa

Deitura	Edizioak	Izena emandakoak
Larruazalpeko zaineko erreserborioa daraman pazienteak	10	1.323
Mendekotasuna eta tabakoa uzteko banakako teknikak	12	418
Hasierako asistentzia sindrome koronario akutuen susmoaren aurrean	12	1.276
Tabakoari buruzko aholku laburra	1	Sarrera librea
Kolon-ondesteko minbiziaren baheketa. Alderdi teoriko - praktikoak	6	386
Genero-indarkeriari buruzko oinarritzko ikastaroa osasungintzako profesionalentzat	9	441
Farmakozaintza	6	430
Zeladoreentzako prestakuntza	5	189
Eskuetako higieena osasun-arretaren garaian	11	1.556
Erizaintzako metodologia eta zainketen kudeaketa, Osanaia	17	1.008
Presioak eragindako ultzeren prebentzioa eta zainketa	8	496
Datu pertsonalen babesa osasungintzako erakundeetan esparruan	1	3.720
SAP - Oinarritzko eskuliburua	6	308
SAP query	6	281
Sendagaiaren erabilera zuzena: Paziente polimedikatuen zainketa integrala	2	666
Txertoak	2	87
Guztira	114	12.585

Garapen profesionala

Profesionalen gogobetetzea neurtzea

Pertsonen gogobetetzeari buruzko inkestaren emaitzen igorpena, aplikazioa eta ustiapena ahalbidetuko dituen enpresa espezializatu baten kontrataziorako espedientea esleitu da.

Gogobetetzearen ebaluazio-prozesua aurrera eramateko, online aplikatuko den metodologia bat zehaztu da, Enpleguaren Atarian kokatuta dagoen inkesta baten bidez.

Zehaztutako ebaluazio-prozesuak erakunde guztiak hartzen ditu barnean eta kolektibo batzuk zein besteak ordezkatzeko dituzten erakunde bakoitzeko lagin segmentatu batera zuzentzen da. Emaitzen ustiapena xede horretarako zehaztutako aplikazio batean eta erakunde bakoitzarentzat eskura dauden txosten dinamikoen bidez egiten da.

Ebaluazio profesionala

Existitzen diren (bai korporazio eta bai zerbitzu-erakunde mailan) ebaluazio profesionaleko ereduen eta beste osasun-zerbitzu eta administrazio publiko batzuetako araudien eta ebaluazio ereduen berrikuspen bat egin da, bereziki buruzagitzen ebaluazioari dagokionez, esandako buruzagitza horiek lehiaketa bidez sartuak edota izendapen askekoak izan.

Berrikuspen horretatik abiatuta, esparru-araudi baten proposamen/zirriborroa elaboratu da zerbitzu eta sekzioko buruzagitza postuen ebaluazioa egin ahal izateko. Aipatutako araudi proposamenak ebaluazioaren helburuak, irizpideak, edukiak eta faseak biltzen ditu; baita ebaluazio-prozesuan esku hartzen duten agenteak ere. Halaber, ezarketa proposamen bat ere egin da, berorren faseak, fase bakoitzean inplikatutako kolektiboak eta kronograma kontuan hartuta.

Curriculum Vitae-ren aplikazio informatikoa

Curriculum Vitae tresna **transbersal** modura planteatu da, curriculum-merezimenduen balorazioa inplikatzen duten prozesuen euskarri gisa.

CV aplikazioaren hobekuntza-prozesua

CVaren kudeaketa hobetzeko proiektu bat gauzatu da hiru jarduketa-ildorekin:

1. Aplikazioan hobekuntzak ezartzea

- Aplikazioaren edukiak **eguneratzea** (atalak, merezimenduak, erregistro-eremuak, zabalgarrien aukerak, eta abar)
- Hobekuntzak **tresnaren funtzionalitatean**: prestakuntza-jarduerak antolatzen dituzten erakundearen erregistroa, baliozkotze jardueraren erregistroa, erregistroen egoera berriak, etab.
- Informazioa ustiatzeko **erabilgarritasun berriak** erregistroak eta berorien informazio eremuak Excel edo pdf artxibo batera esportatzeko.

2. Hobekuntza kudeatzeko prozeduretan eta merezimenduak baliozkotzean: kudeatzeko prozeduren eguneratzea, merezimenduak baliozkotzeko eskuliburuak eta profesionalentzako jarraibideak.

3. Edukien eguneratzeetan eta egindako hobekuntzetan erregistratutako informazioa antolatzeko eta egokitze jarduerak aurrera eramatea.

Giza Baliabideetako informazio-sistemak

Giza Baliabideetako aginte-aula

Erakundeekin eta zerbitzu korporatiboekin batera, kudeaketaren jarraipena egiteko adierazleak zehaztu dira, gastua, plantilla, kontratazioa, kideak, absentismoa, laneko osasuna, prestakuntza eta euskara barne direla.

Lau txosten elaboratu eta zabaldu dira –hiru hiletik behin– Giza Baliabideen kudeaketaren jarraipena egiteko zehaztutako adierazleekin, tipologia bereko zerbitzu-erakundeen arteko alderaketa-datuak barne.

BW Analyzer tresnari dagokionez, txosten berriak eta pertsonen kudeaketari buruzko adierazleak txertatu dira, zerbitzu-erakundeek –eta korporazio-mailan– erabili ditzaten.

- Langileen eta nominen gastua (14 txosten)
- Kontratututako egunak eta pertsonak (2 txosten)
- Absentismoak, absentziak eta karteldegia-datuak (12 txosten)

Aldi berean, antolakuntzari eta plantillari buruzko txosten bloke berri bat diseinatu eta garatu da. Berorren xedea plantilla estrukturalari eta pertsona aktiboek, aldi baterako kontratazioari eta plantillaren plangintzari buruzko datuak ustiatzea da.

Hizkuntza-normalizazioa

1. Baliozkotzeak, salbuespenak, kexak

KEXAK

JATORRIA	KEXA KOPURUA
UN PARTICULAR	4
BEHATOKI	74
ELEBIDE	77
GUZTIRA	159

ERAGINPEKO ARRETA-EREMUAK	KEXA KOPURUA
ARRETA ESPEZIALIZATUA	125
ERAKUNDE ZENTRALA	30
OSASUN SAILA	2
LEHEN MAILAKO ARRETA	1
GUZTIRA	159

BALIOZKOTZEAK

Osakidetzaren profilekin baliozkotutako ziurtagiriak	Interesdunak eskatutako baliozkotzeak	Ofiziozko baliozkotzeak (jatorria langileen hautatze- prozesuetan)	Ofiziozko baliozkotzeak (jatorria hautagaien hautatze- prozesuetan)	Guztira
1. HErekin	130	228	1.571	1.929
2. HErekin	221	351	2.105	2.677
3. HErekin	107	429	2.672	3.208
4. HErekin		10	280	290
GUZTIRA	458	1.078	6.631	8.104

Enpleguaren atariaren bitartez: 4

Ikasketa akademikoak euskaraz egiteagatik: 29

- DBH edo Teknikaria – 1. HE: 3
- Batxilergoa edo goi-mailako teknikaria- 2. HE: 12
- Unibertsitatea : diplomatura, lizentziatura – 3. HE: 14
- Doktore-tesia, Filologia, Itzulpengintza – 4. HE: 0

SALBUESPENAK

Salbuespenak guztira 2/2014 Jarraibidea indarrean dela:

– 41 eskabide:

- 32 onartu dira
- 9 errefusatu dira derrigortasun-data ez edukitzeagatik

2. Euskara eta trebakuntza-ikastaroak

	PLAZAK	PERTSONAK
Programa trinkoak	231	155
Barnetegiak	7	3
2 orduko ikastaroak lanordutan	81	65
Lanorduz kanpoko aurrez aurreko ikastaroak	1.436	1.202
Autoikasketako lanorduz kanpoko ikastaroak	593	511
Udako ikastaroak	84	68
4. HEko ikastaroa	29	25
HEOn matrikulatzeko diru-laguntzak	144	144
IVAPen trebakuntza-ikastaroa Zuzendaritza Nagusian	32	30
UDABERRIA mintzapraktika-ikastaroak Zuzendaritza Nagusian	30	30
Online ikastaroak zerbitzu-erakundeetan	182	148
Aurrez aurreko ikastaroak zerbitzu-erakundeetan	255	252
GUZTIRA	3.104	2.633

2.a. Eguneroko kukua

Ekimen hori martxoan jarri zen abian, euskararen ezagutza sendotzeko helburuarekin. Aldez aurretik hala eskatu dutenei posta elektronikoz egunero bidaltzen zaizkien prestakuntza-pilulak dira. Zerbitzuan 5.900 enplegatu inguru daude alta emanda, eta 117 igorpen egin ziren. Bidali ondoren, prestakuntza-pilula guztiak intraneten argitaratu dira.

3. Itzulpengintza eta interpretazioa

Zenbat erakundek eskatu dituzten itzulpenak	Zenbat dokumentu eskatu diren	Zenbat orri eskatu diren	Zenbatekoa
19	2.047	5.030	96.274,20

Itzulpen-zerbitzua gehien eskatu duten erakundeak:

Erakundea	Dokumentu kopurua	Orri kopurua
Zuzendaritza Nagusia	1.607	4.079
Erizaintza Eskola	73	199
Goierri - Urola Garaiko ESI	75	247
Arabako Osasun Mentaleko Sarea	132	174
Arabako Eskualdea	57	108
Barrualde-Galdakaoko ESI	31	75

Interpretazioak

Aurten 15 interpretazio-saio egin dira, horietatik 6 mahai sektorialaren bilerak izan direlarik.

Batzordeak-ekitaldiak Zuzendaritza Nagusian	Ekitaldi kopurua
Mahai sektorialak	6
Segurtasun eta Osasuneko Batzorde Korporatiboa – ohiz kanpoko bilera	1
Euskararen Eguneako aintzatespenak ematea	1

Interpretazio-zerbitzua eskatu duten erakundeak:

Erakundea	Zerbitzu kopurua	Batzordea
Barrualde-Galdakaoko ESI	4	Euskara Batzordea – LMAUen bilera
Debagoieneko ESI	2	Euskara Batzordea
Larrialdiak	1	EKALME biltzarra

4. Legebiltzarra

20 txosten idatzi ditugu legebiltzar-taldeek eskakizunei erantzuteko:

6 Legebiltzarreko galdera

9 Informazio eskaera

Agertze 1

Hitzek erantzuteko galdera 1

3 Legez besteko proposamen

5. HEetarako azterketak

2015-1 deialdia	1HE	2HE	3HE	4HE	Guztira	%a
Deituak	854	1272	302	31	2459	
1. probara aurkeztutakoak	489	860	165	15	1529	% 62
Egiaztatuak	169	180	12	2	363	% 24

2015-2 deialdia	1HE	2HE	3HE	4HE	Guztira	%a
Deituak	478	872	149	19	1518	
1. probara aurkeztutakoak	252	516	58	11	837	% 55
Egiaztatuak	59	133	9	2	203	% 24

Akordio bar formalizatu da eta haren arabera hizkuntza-eskakizunei dagozkien akreditazioen inguruko jarduerak eta egikaritze materialak IVAPek kudeatuko ditu. Aurtengoan, langileentzako hizkuntza-eskakizunen deialdiak Osakidetza zuzendari nagusiak egin ditu, eta 2016rako aurreikusita dago Osakidetza langileentzat egiten diren hizkuntza-eskakizunen deialdiak Osakidetza egingo dituela orobat. Osakidetza elkarlanean arituko da IVAPekin Euskara Zerbitzuaren bitartez. Urtean bi deialdi egitea dago aurreikusita.

6. OSATU berri aldizkaria

Aurreikusita zegoen bezala, ekitaldiaren hasieran kontratuaren luzapena formalizatu zen Iragarri SL erakundearekin aldizkaria eta buletin digitala elaboratzeko zerbitzuen kontrataziorako.

24 orrialdeko 6 zenbaki argitaratu dira, paperezko euskarrian (5.000 unitate), bi hiletik behin.

Halaber, bi hilabeteko maiztasunarekin, 6 buletin elektroniko elaboratu dira, 4 orrialdekoak, eta posta elektroniko bidez eman zaie langileei haren argitalpenaren berri.

Bigarren seihilekoan, azken urteotan egindako lanari jarraipena emateko beharrezkoak diren zerbitzuak eskainiko zituen enpresa baten kontratazio-prozesua eraman da aurrera.

7. Euskara Plana

AURRERAPEN NAGUSIAK HIZKUNTZA-NORMALIZAZIORAKO NEURRIEN GARAPENEAN

Historia kliniko elebidunaren garapenaren barruan, abian dago Osanaiaren itzulpena, eta Osabide itzultzen hastea erabakita dagoenez, berehala ekingo zaio eginbide horri. Osabide Globalera GNS 10 euskaraz gehitzeko konpromisoa hartu da. Idatzi bat igorri zaio Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari, bera denez kasuan eskumena duen erakundea, eta Snomed CT ontologiaren itzulpena eskatu zaio. Baiezkoarekin erantzun diote gure eskaerari. Era berean, harremanetan jarri gara Kataluniako osasun-sistemaren ordezkariarekin, historia kliniko elebidunaren ezarketan izan duten esperientzia ezagutzearren eta, egokia iruditzen bada, Osakidetzan aplikatzeko.

- Pazienteei nahiago duten hizkuntza: asistentzia ematerakoan erabilitako aplikazioetan, aldatu egin dira hizkuntza-aukerak. Lehen, euskara edo gaztelania soilik agertzen ziren, baina, duela gutxi, «kontsultatu gabe» dioena erantsi da, azken aukera hori «gaztelania» jasota daukaten pazienteei esleitzeko asmotan; izan ere, paziente gehienei ez zaie kontsultatu zer hizkuntzatan mintzatzea nahi duten, baizik eta zuzenean esleitu zaie gaztelania. Azken urrats hori berehala gauzatuko da.
- Zuzendaritza-karguetan dauden pertsonen euskara-prestakuntza espezifikoa eskaintzeko asmotan, jakinarazpen bat bidali zaie zerbitzu-erakunde guztiei, proiektuaren azalpenak emanez eta berorrek pizten duen interesari buruzko informazioa eskatuz. Zuzendaritza-postuetan dauden 35 pertsonak hartu nahi dute parte prestakuntza horretan.
- Informatika Zuzendariordetzarekin elkarlanean, osasun-esparruan erabiltzen diren aplikazioei tresna-barra bat eranstea erabaki da, eguneroko lanean lagungarri gerta dakien beren lana euskaraz garatu nahi dutenei. Esandako barrak barnean hartu behar lituzkeen edukiak definitzeko orduan, berriz, xede dituen profesionalen ordezkartza baten lankidetzak eduki nahi genuke.
- Koordinazio eta komunikazio unitateekin lankidetzan, aintzatespen eta esker oneko lehen jardunaldia egin zitzaizen euskararen sustapenean nabarmendu direnei. Zerbitzu-erakundeei proposamenak eskatu zitzaizkien eta jasotako proposamen guztiei aintzatespena egitea erabaki zen. Ekitaldiak harrera ona izan zuen eta berorren balorazio positiboa egin da.
- Aldi baterako kontratazioa: Ezingo dira langileen kontratuak mekanizatu egiaztatutako HE gabe derrigortasun-data beteta duten lanpostuetarako, behar bezala justifikatu beharko diren salbuespenezko kasuak kenduta. Jarraibidean argi eta garbi zehazten da zer prozedura segitu behar den zerbitzu-erakunde guztietan aldi baterako kontratazioari dagokionez. Ez da indarrean jarriko harik eta mahai sektorialean sindikatuei aurkezten zaien arte.
- Bi protokolo korporatibo sinatu dira II. Euskara Planaren irizpideak behar bezala aplikatu daitezkeen bai iragarki, publizitate eta kanpaina instituzionaletan, zein ekitaldi publiko eta jardunaldietan. Biak jakinarazi eta abian jarri beharko dira 2016. urtearen hasieran.
- Euskarazko elkarriketarako bi gida diseinatzearekin batera (bata fisioterapeutentzat eta bestea asistentziako zeladoreentzat), oinarriak zehaztu dira, behin aipatutako gidak elaboratu ondoren, 2016. urtearen hasieran 50 bat orduko prestakuntzarako material didaktikoa sortzen hasteko, esandako giden edukian oinarrituta.
- Hizkuntza-eskubideak gehitu dira, hala paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren zerrenda ofizialera, nola Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko uztailaren 21eko 147/2015 Dekretura.
- Euskara alorreko Zerbitzu Korporatiboak izaera orokorreko 9 trebakuntza-ikastaro eman ditu eta IVAPekin adostu da 2016an beste 9 ikastaro eskaintzea.
- 2014ko ebaluazioan zehaztutako adierazleak mantendu dira euskararen erabilerari dagokionez.
- Protokolo bat adostu da hizkuntza-eskubideei buruzko kexen jarraipena egiteko Eusko Jaurlaritzaren Elebide zerbitzuarekin, zeina, urtea amaitu eta gero, sinatua izateko zain baitago.

- Erdi-mailako arduradunei zuzendutako online ikastaro bat diseinatzen hasita daude, euskararen erabilera irizpideak gai hartuta.
- Euskarari buruzko informazioa ematen duen triptiko bat argitaratu da eta osasunaren eremuko EHUKo eta LHko moduluetakoko ikasleen artean banatuko da. Gainera, aipatutako bi instituzioekin, hainbat ekimen abian jartzea erabaki da irakaskutza euskaraz ematea sustatzeko bai gorago aipatutako ikasketetan eta bai praktikak egiteko aldietan.
- Euskara Planaren Batzorde Korporatiboa 3 aldiz bildu da eta informazio-saioak egin ditu bai Euskara Planeko intereseko taldeekin eta bai Mahai Sektorialeko ordezkariekin.
- Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak gainbegiraturik, bi traumatologo eta Euskara Zerbitzuko teknikari bat traumatologiako hiztegia sortzeaz arduratuko den talde teknikoarekin elkarlanean hasi da.
- Hizkuntza-normalizazioaren arloko lankidetzaren protokoloa bat idatzi da Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, oraindik sinatu zain dagoena.

Era berean, lehenengo harremanak egin dira Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundietako euskara zerbitzuekin, aipatutako erakunde horiekin protokoloak adosteko helburuarekin.

8. Euskara nahitaezkoa duten lanpostuen kudeaketa

Zenbait zerbitzu-erakundek formalki eskaturik, derrigortasun-datak izendatzeari, kentzeari edo aldatzeari buruzko hainbat txosten edo lanpostuetako hizkuntza-eskakizunen aldaketari buruzko beste zenbait aurkeztu dira Administrazio Kontseiluaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrean.

Eskakizun horiek behin-behineko izaeraz kudeatu dira onartuak izan aurretik eta behin betiko izaerarekin, aldiz, behin onartu eta gero, bai SAP-Euskararen eta bai Euskara Planaren II. Eranskineko kudeaketarako Acces aplikazioan, non jasotzen diren lanpostuak erakunde publikoaren derrigortasun-datarekin.

Ondorengo hauek dira Administrazio Kontseiluak onartutako lanpostuen hizkuntza-eskakizunei eta derrigortasun-datei buruzko aldaketak:

2015-I

Aldaketa mota	Tipo de modificación	Zk. / N ^a
Derrigortasun-data jarri	Asignación fecha de preceptividad	329
Derrigortasun-data kendu	Supresión de fecha de preceptividad	19
Derrigortasun-data aldatu	Modificación fecha de preceptividad	22
Hizkuntza-eskakizuna aldatu	Modificación perfil lingüístico	17

2015-II

Aldaketa mota	Tipo de modificación	Zk. / N ^a
Derrigortasun-data jarri	Asignación fecha de preceptividad	110
Derrigortasun-data kendu	Supresión de fecha de preceptividad	8
Derrigortasun-data aldatu	Modificación fecha de preceptividad	4
Hizkuntza-eskakizuna aldatu	Modificación perfil lingüístico	11

Urtearen amaieran, 9.566 lanpostu daude, guztira, derrigortasun-datarekin (plantilla estrukturalaren % 37,08).

Esparru honetan etengabeko hobekuntzaren printzipioa aplikatzeko asmotan, 2012ko azaroan ISO 9001 arauaren irismena Euskara Zerbitzura hedatu zen, eta 2012ko, 2013ko eta 2014ko apirilean ISO 9001:2008 ziurtagiria lortu zen.

2014. urtearen ostean –esan behar da derrigortasun-datak aldatzeko eskakizun kantitate ikaragarri batek (4.700) markatu zuela urte hura, 2. Euskara Plan honetarako ezarritako helburuak betetzearen ondorioz–, 2015ean normaltasunera itzuli da eskakizun kopurua (520), Planaren garapenaren barruan. Bestalde, eskakizunak eta gorabeherak kudeatzeko tresna gisa Calitel abian jarri izanak hobekuntza nabarmena ekarri du aldaketa horien izapideetara, berorien sistematizazioari, artxiboari eta jarraipenari dagokion guztian.

Nabarmentzekoa da, orobat, urte honetan, II. Euskara Planak ezarritako zenbait puntu zehazteko eta argitzeko premiak hauteman direla, esate baterako derrigortasun-data ezartzeko irizpideak, data igarota edo igaro gabe, okupatzaileak postuarekin duen erlazioa eta planak ezarritako derrigortasun-dataren aldaketa kontuan harturik, zeren eta planaren atzeraeraginezko izaerak (2013-03-12) arazoak sortzen baitzituen zenbait lanpostutan. Premia horiek, nolanahi ere, zerbitzu-erakundeen gogara ebatzi dira azkenean. Hautemandako beste hobekuntza eremu batzuk, hala nola bete gabe dauden postuak esleitzeko irizpideak argitzea eta egindako aldaketak eraginpeko langileei komunikatzeko protokolo bat ezartzea, ebazpen-prozesuan daude hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten aldaketei buruzko Osakidetza zuzendari nagusiaren 1/2014 Jarraibidea eguneratzearekin eta 2016ko helburu bihurtu ondoren.

Enpleguaren ataria

Informatika zuzendariordetzako eta Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen zuzendariordetzako hainbat pertsonak osatutako lantaldeak lanean jarraitu du aplikazio berriak eta hobekuntzak gauzatuz Enpleguaren Atarian, bi esparruri lehentasuna emanez:

- Tresnaren osoko berrikuspena (egitura, gorabeherak, hobekuntza proposamenak....)
- Eskaerak izapidetzeko funtzionalitate berriak irekitzea, adibidez: baimen, lizentzia eta oporren eskaera; txanda-alaketaren eskaera; euskarako titulua baliozkotzeko eskaera; hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen salbuesteko eskaera; eta enpresako ziurtagiriaren eskaera.

Edukiei dagokienez, aipatzekoa da «datu pertsonalen» atala berrikusi dela eta egoki ikusi diren aldaketak ezarri zaizkiola eta gainerako atalak ere berrikusi direla.

Funtzionalitate berrien ezarketari dagokionez, berriz, esan behar da beste 7 zerbitzu-erakundetara zabaldu direla:

1. Larrialdiak
2. Uribeko ESI
3. TGEEZ
4. Santa Marina Ospitalea
5. Gorlizko Ospitalea
6. Barakaldo-Sestaoko ESI
7. Enkarterri-Gurutzetako ESI

Hobekuntzaren kudeaketa

Prozesuen eraginkortasunaren eta efizientziaren hobekuntzan jarraitu da lanean, eredu parte-hartzaileetan oinarritutako kudeaketa-sistema eta estandar nazional eta nazioartekoen peko akreditazio-sistemak sustatuz, eta sormena eta berrikuntza bultzatuz, ezagutza trukeen eta elkarrekiko sorkuntzaren bitartez.

Ildo horretan, Giza Baliabideen Zuzendaritzak bere prozesu korporatiboak berriro ziurtatzeari eutsi dio, bere kudeaketa-sistemaren irismenean dauden eta ISO 9001-2008 ziurtagiria daukaten neurrian.

- Ordainsari-kudeaketaren prozesu korporatiboa
- Lanpostuetako hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten kudeaketako prozesu korporatiboa
- Enplegu eskaintza publikoaren prozesu korporatiboa
- Lekualdatze-lehiaketaren prozesu korporatiboa

Kanpoko auditorien prozesua ondorengo zerbitzu-erakundeetan gauzatu da:

1. Arabako ESI
2. Donostialdeko ESI
3. Tolosaldeko ESI
4. Barrualde-Galdakaoko ESI
5. Barakaldo-Sestaoko ESI
6. Santa Marina Ospitalea
7. Gipuzkoako OMS
8. Zuzendaritza Nagusia

Urtero bezala, auditorien prozesua sareko zerbitzu-erakundeen heren batean gauzatu da, hiru urteko aldian erakunde guztiak (% 100) auditatzeko konpromisoarekin.

Lan-osasuna

Lan-arriskuen prebentziorako plana

Prebentzioaren arloko 2013-2016rako ildo estrategikoek, Giza Baliabideak Antolatzeko Planean deskribatutako segurtasun eta osasuneko 8. lerroan adierazitako ekintzekin batera, aurrera egiten jarraitu dute urte honetan.

Faktore psikosozialen ebaluazioa

Faktore psikosozialak ebaluatzeko metodo berria behin adostu ondoren, ebaluazioari ekin zitzaion eta esandako erreminta aplikatu zen Barrualde-Galdakaoko ESI, «formatu» pilotu batean. Aurreikusita zegoen bezala, ekainean zehar aplikatu zen aipatutako tresna.

Profesionalen parte-hartzea

Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Korporatiboko foroa mantentzeaz gainera, erasoen behatokiaren bilerei eusteko konpromisoa bete da, mahai tekniko espezifikaren papera joka dezan profesionalei egiten zaizkien erasoekin zerikusia duten ekintzen tratamendurako.

Prebentzioko ordezkariak zuzendutako laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza-ikastaro berri bat ere planifikatu da hurrengo urterako.

OHSAS 18001 Ziurtagiria

Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistemaren akreditazioa inplementatzen jarraitu da, OHSAS 18001 arauaren pean, Osakidetza zerbitzu-erakundeetan, proiektu estrategiko gisa.

OHSAS PROIEKTUAREN AURRERAPENAREN ADIERAZLEAK

Ondoren aurkezten diren adierazleak metatze izaerakoak dira:

1. LAP kudeatzeko sistemaren barne-auditorien adierazlea:

Barne-auditoria egin duten ZE kop. = % 80 (16/20).

2. OHSASen kanpoko ziurtagiriaren adierazlea:

OHSASen kanpoko ziurtagiria egin duten ZE kop. = % 33,33 (7/21).

3. Giza Baliabideen Zuzendaritzak egiaztatutako LAP kudeatzeko sistemaren barne-auditoreak:

Egiaztatutako barne-auditoreen kopurua = % 96,25 (77/80).

Adierazleen deskribapena:

Deskribatutako adierazleek aldaketak jasan dituzte antolakuntza-egitura berrira egokitzearen ondorioz, batez ere, *erakunde sanitario integratuak sortu direnetik hona*.

Horrela, 1. adierazlearen kasuan, kudeaketa sistemaren OHSASen barne-auditoria egitea ezarri da zerbitzu-erakunde guztietan (% 100). Zerbitzu-erakundeen % 80tan egin da OHSASen barne-auditoria, eta 2016rako planifikatuta dago falta den % 20ari egitea. Barne-auditoria egin duten erakunde berriak izan dira Debagoieneko ESI, Debarreneko ESI eta Arabako Unibertsitate Ospitalea.

2. adierazleak, berriz, beste helburu bat du ezarrita: 2016rako OHSASen kanpoko ziurtagiria lortuta izatea zerbitzu-erakundeen % 75ean. Erakunde sanitario integratuak sortu ostean, 9 dira beren ziurtagiriari eutsi dioten zerbitzu-erakundeak: Bidasoako ESI (osorik), Uribe Eskualdea (osorik), Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea (ospitale psikiatrikoak), Barrualde-Galdakaoko ESI (Galdakaoko ospitalea), Barakaldo-Sestaoko

ESI (osorik), Goierri-Urola Garaiko ESI (Zumarragako ospitalea) eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI (osasun-zentroak). Tolosaldeko ESIk (osorik) eta Donostialdeko ESIk (osasun-zentroak) Gipuzkoa Eskualdetik zetorkien ziurtagiriari eutsi diote. Gainera, erakunde berri batek, Gorliz Ospitaleak, aurten eskuratu du OHSAS ziurtagiria.

Hirugarren adierazleari dagokionez, 2016rako helburu bat ezarri zen: OHSASen kanpoko 80 auditore prestatzea zerbitzu-erakundeen barne-auditoriak egitea bermatzeko. Maiatzetik hona, 77 barne-auditore ditugu abian Giza Baliabidetako Zuzendaritzak egiaztatuta zerbitzu-erakundeetan aipatutako auditoriak egiteko, beraz, planifikatutako helburuaren % 96,25 beteta dago jada.

Gaitasunak baloratzeko batzordea

Gaitasunak baloratzeko batzordeak 3 bilera egin ditu eta 53 kasu berri tratatu ditu guztira (40 emakumezko/13 gizonezko); horietatik 10 lan-eskaintza publikoari dagozkionak dira.

Osasun-arrazoien ondoriozko lekualdaketen batzorde korporatiboa ere bildu zen, martxoan, eta 4 kasu berri tratatzeaz gainera, aurreko 8 kasu berrikusi zituen.

Osasun-azterketak

Osasuna zaintzeko ondorengo azterketa hauek egin dira:

URTEA	GUZTIRA	HASIERAKOAK	ALDIZKAKOAK	LEP	Zuz. esk.	>65a	Haurd. D.	BESTE
2015	13.863	3.769	9.223	207	22	135	303	104

Aplikatu diren zainketa-protokolo espezifikoak honako hauek izan dira:

- Hezur-giharretakoa	6.150
- Datuak bistaratzeko pantailak (DBP)	3.137
- Odoleko biologikoa	7.069
- Aireko biologikoa	6.499
- Biologikoa ukipenez	4.581
- Arnasten diren agente anestesikoak	132
- Agente zitostatikoak	544
- Etileno-oxidoa	31
- Agente kimikoak	409
- Zarata	104
- Erradiazio ionizatzaileak	1.016
- Erradiazio ez-ionizatzaileak	58
- Osasun mentala	176
- Amiantoak	64

Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak

Urte honetan zehar ondoren adierazten diren datuok jakinarazi dira:

URTEA	LAN-ISTRIPUAK			GAIXOTASUN PROFESIONALA
	GUZTIRA	BAJA GABE	BAJAREKIN	GUZTIRA
2015	3.975	2.634	1.341	15

Istripu-indizeak

Istripu-indizeak aurrez ezarritako izendatzaile erkide baten funtzioan kalkulatzen dira, gero datuak alderatu ahal izateko. Maiztasun-indizearen kasuan, izendatzaile hori lan egindako orduen kopurua da.

LI maiztasun-indizea BAJAREKIN	Maiztasun-indizea
Guztira	17,13
	62,25

LI maizt. indizea bajarekin = LI bajadunen kopurua / 1.000.000 lan egindako ordu (in itinere-ko LI kenduta).

Maizt. indizea guztira = baja sortu duten LI + baja gabeko LI / 1.000.000 lan egindako ordu (in itinere-ko LI kenduta).

Txerto-programa arrisku biologikoei aurre egiteko

Langileei jarritako txertoei dagokienez, honako hauek dira datu esanguratsuenak:

DOSIAK GUZTIRA	VHB	TETANOS	GRIPE	VHA eta A+B	BESTE
11.847	1.303	1.167	7.891	1.358	128

Osasun-arrazoien ondoriozko lekualdatzeak

Honako hauek dira gure erakundeetan aurkeztutako kasu guztien datuak:

2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
139	142	119	140	121	77	62	101

Lan-arloko jurisdikzioa

Izapidetutako auzi-eskeak eta berorien egoera

GAIA	KOP.	EBAZTEKE	ALDEK.	KONTR.	ERREKUR. EBAZT.	ALDEKO ERREKUR.	KONTR. ERREKUR.
Laneko jazarpena	1	1	0	0	0	0	0
Alta medikoak	11	5	6	0	0	0	0
Antzinatasuna	1	0	1	0	0	0	0
Kategoria/Funtzioak	1	0	0	1	0	0	0
Kargugabetze eta kaleratzeak	10	4	4	0	2	0	0
Txanda-lanaren osagarria	1	0	0	1	0	0	0
ABEren % 100eko osagarria	0	0	0	0	0	0	0
Gatazka kolektiboa	0	0	0	0	0	0	0
Eskubide sozialak	0	0	0	0	0	0	0
Bidegabeko kantitateen itzulketa	0	0	0	0	0	0	0
Soldata-aldeak	1	1	0	0	0	0	0
Segurtasun-neurrien	2	2	0	0	0	0	0
Ezgaitasuna eta baliaezintasuna	35	28	2	1	2	1	1
Plantillan integratzea	0	0	0	0	0	0	0
Lanaldia	1	1	0	0	0	0	0
Borondatezko erretiroa	0	0	0	0	0	0	0
Lan-baldintzen aldaketa	2	1	1	0	0	0	0
Mugikortasuna	0	0	0	0	0	0	0
Pentsioak	2	0	0	1	1	0	0
Hobaria borond. erretiroagatik	0	0	0	0	0	0	0
Laneko luzapena > 65 urte	0	0	0	0	0	0	0
Gastuak itzultzea	16	9	5	1	1	0	0
Zehapenak	0	0	0	0	0	0	0
Oporrak, lizentziak eta baimenak	47	44	3	0	0	0	0
Beste	2	2	0	0	0	0	0
GUZTIRA	133	98	22	5	6	1	1

EBAZTEKE = Epairik gabe


ALDEK. = Aldeko ebazpena

KONTR. = Kontrako ebazpena 1.an

ERREKURTSOA EBAZT. = Erregutze-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari edo kasazio-errekurtsoa Auzitegi Gorenari epairik gabe

ALDEKO ERREKUR. = Aldeko epaia erregutze- edo kasazio-errekurtsokan

KONTR. ERREKUR. = Kontrako epaia erregutze- edo kasazio-errekurtsokan



IKERKETA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

Osakidetza, harengandik jaiotako Osasun Ikerkuntzarako Institutuak (Biodonostia, Biogurutzeta eta Bioaraba) eta Kronikgune dira euskal osasun-sistema publikoko I+G+b jarduerak egikaritzen dituzten erakunde nagusiak. Biodonostia eta Biogurutzeta Carlos III.a Osasun Institutuak egiaztatu ditu 2011n eta 2015ean, hurrenez hurren.


Gure osasun-erakundean gauzatzen diren ikerketa eta berrikuntzei buruzko datuak Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioak (BIOEF) emandakoak dira, berori baita tresna printzipala mota honetako jarduerak osasun-sisteman sustatzeko eta koordinatzeko.

BIOEF erakundeari gomendatu zaio Euskadiko osasun-sistema publikoaren ikerketa- eta berrikuntza jardueraren kudeaketa. Bera da, hortaz, arlo honetako «erakunde korporatiboa», kudeaketa-prozedura homogeneoak koordinatzen eta normalizatzen baititu Osakidetzako I+G+b-ko erakunde guztiekin (Biodonostia eta Biogurutzeta institutuak eta Kronikgune) partekatzen duen ikerketa eta berrikuntza kudeatzeko tresna informatiko berberaren inguruan. Horrek guztiak ahalbidetzen dio BIOEFi esparru honetan gertatzen denaren informazio globala osasun-sistemari eskaintzea.

Ikerketa-proiektuak

2015ean aktibatuta egon diren laguntzak eta ikerketa-proiektuak

Proiektuak eta gainerako eskabide aktiboak (giza baliabideak eta azpiegiturak barne direla), 795 izan ziren, 44.699.360 €-ko balioarekin aipatutako proiektuak guztiz egikaritzeko (hiru urte, batez beste). Zifra horietatik kanpo gelditzen dira farmazia-industriak sustatutako –edo sustatu gabeko– saiakuntza klinikoak, horiek geroago aipatuko direlarik.




Saiakuntza klinikoak


Abian jarri diren azterlan klinikoak 172 izan dira; horrek esan nahi du 279 kontratu sinatu dituztela egikaritze-zentroek (azterlan gehienak zentro anitzekoak dira).

Zentroen arabera banaketa kontuan hartuta, BILBO-BASURTUKO ESI da azterlan gehien dituen erakundea. Ondoren datoz DONOSTIALDEKO ESI, EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI, ARABAKO ESI eta BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI, hurrenkera horretan.

Azterlan motei erreparatuta, % 34 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 59 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, eta % 7 beste mota batzuetako ikerketa klinikoak. Finantzaketa moduari dagokionez, azterlan klinikoen % 86 komertzialak dira (farmazia-industriak sustatu eta finantzatutakoak) eta % 14 azterlan kliniko ez-komertzialak.



10 zerbitzutan biltzen dira 2015ean abian jarritako azterlanen % 72:



Bolumen ekonomikoari dagokionez, azterlan klinikoen kontzeptuan fakturatutako zenbatekoa 2.087.042,22 eurokoa izan da guztira.

Finantzaketa

Emandako urte anitzeko lehiakortasunerako Europako funtsak

Nazioarteko finantzaketa duten (Europakoa, batik bat) proiektu aktiboak 42 dira. 6.321.765,27 €-ko diru-laguntza dute guztira eta Euskadiko Osasun Sistema Publikoan egikarrituko dira. Abian dauden 42 proiektu horietatik 2 gure osasun-sistematik koordinatzen dira.

ESPEDIENTE ZK.	PROIEKTUAREN IZENBURUA	PARTE HARTZEN DUTEN ZENTROAK
UE/2011/REFBIO	PIRINIOETAKO IKERKETA BIOMEDIKORAKO MUGAZ GAINDIKO SAREA - IKERKETA BIOMEDIKOKO ZENTROEN ARTEKO LANKIDETZA SARE EGONKOR BAT ERATZEA PIRINIOEN ESPAZIOAN	BIOEF / ARABAKO UNIBERTSITATE-OSPITALEA / BIODONOSTIA INS. - DONOSTIALDEKO ESI / BILBO-BASURTUKO ESI
UE/2012/GAMEUP	GAME-BASED MOBILITY TRAINING AND MOTIVATION OF SENIOR CITIZENS	BIOEF
UE/2013/CHRODIS-JA	JOINT ACTION ON CHRONIC DISEASES	BIOEF
UE/2012/ACT	ADVANCING CARE COORDINATION & TELEHEALTH DEPLOYMENT PROGRAMME	BARRUALDE-GALDAKAKO ESI / URIBEKO ESI / BIDASOAKO ESI / OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / KRONIKGUNE
UE/2013/CAREWELL	MULTI-LEVEL INTEGRATION FOR PATIENTS WITH COMPLEX NEEDS	DONOSTIALDEKO ESI / BILBO-BASURTUKO ESI / SANTA MARINA OSPITALEA / BIOGURUTZETA INS. - EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI / URIBEKO ESI / DEBAGOIENENKO OSPITALEA / OSASUN SAILA / OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / KRONIKGUNE
UE/2011/SPAIN-RDR	SPANISH RARE DISEASE REGISTRIES RESEARCH NETWORK	OSASUN SAILA
UE/2012/WORKFORCE	FORECASTING HEALTH WORKFORCE NEEDS FOR EFFECTIVE PLANNING IN THE EU- JOINT ACTION	OSASUN SAILA
UE/2012/PERMED	PERSONALIZED MEDICINE 2020 AND BEYOND - PREPARING EUROPE FOR LEADING THE GLOBAL WAY	OSASUN SAILA
UE/2012/DISCHARGE	DIAGNOSTIC IMAGING STRATEGIES FOR CORONARY ANGIOGRAPHY IN PATIENTS WITH STABLE ANGINA: COMPARATIVE EFFECTIVENESS RESEARCH OF EXISTING TECHNOLOGIES (DISCHARGE) - A PRAGMATIC RANDOMISED CONTROLLED TRIAL	OSASUN SAILA / BILBO-BASURTUKO ESI
UE/2012/IMPRINTING	EUROPEAN NETWORK FOR HUMAN CONGENITAL IMPRINTING DISORDERS BM1208	ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA


UE/2013/TENDERMH	THE CREATION OF AN EU NETWORK OF EXPERTS IN THE FIELD OF ADAPTED CARE FOR ADOLESCENTS WITH MENTAL HEALTH PROBLEMS	ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
UE/2012/FI-STAR	FUTURE INTERNET SOCIAL AND TECHNOLOGICAL ALIGNMENT RESEARCH	ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA / KRONIKGUNE
UE/2013/ANTeS	ACCELERATING NEUROMUSCULAR TREATMENT SELECTION	BIOGURUTZETA INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
UE09/GRIP261060	GRIP-GLOBAL RESEARCH IN PAEDIATRICS	BIOGURUTZETA INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
UE10/NEOCIRC282533	DOBUTAMINE FOR NEONATAL CIRCULATORY FAILURE DEFINED BY NOVEL BIOMARKERS	BIOGURUTZETA INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
UE/2013/ECRIN-IA	EUROPEAN CLINICAL RESEARCH INFRASTRUCTURE NETWORK - INTEGRATING ACTIVITIES	BIOGURUTZETA INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
UE/2013/CIG	THE CD300 FAMILY OF RECEPTORS IN HIV INFECTION	BIOGURUTZETA INS. – EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
UE/2010/ PIM2010ERN-00733	ESTIMULACIÓN DEL NÚCLEO SUBTALÁMICO EN EL TRASTORNO DE CONTROL DE IMPULSOS EN LA E. PARKINSON	BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESI
UE/2012/SOX-BMI	ROLE OF SOX9-BMI1 IN ADULT NEURAL STEM CELLS AND IN GLIOMA STEM CELLS	BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESI
UE/2013/AICR-SOX	FUNCTIONAL CHARACTERIZATION OF SOX2-P27 INTERACTION IN NORMAL AND CANCEROUS STEM CELLS	BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESI
UE/2013/REST	REGENERATIVE SPHINCTER THERAPY (REST)	BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESI
UE/2010/EPIC-CVD	EPIC-CVD: INDIVIDUALISED CVD RISK ASSESSMENT: TAILORING TARGETED AND COST-EFFECTIVE APPROACHES TO EUROPE'S DIVERSE POPULATIONS	OSASUN SAILA / BIODONOSTIA INST. – DONOSTIALDEKO ESI
UE/2012/ENGAGED	EUROPEAN NETWORK GROUP FOR AGEING WELL AND ITS DEPLOYMENT	KRONIKGUNE / OSAKIDETZA
UE/2012/REFERENCESITE	BASQUE COUNTRY CANDIDATE REFERENCE SITE OF THE EUROPEAN INNOVATION PARTNERSHIP ON ACTIVE AND HEALTHY AGEING (EIP AHA)	KRONIKGUNE / OSASUN SAILA
UE/2012/SMARTCARE	JOINING UP ICT AND SERVICE PROCESSES FOR QUALITY INTEGRATED CARE IN EUROPE	KRONIKGUNE / OSAKIDETZA
UE/2013/PRE-START	A PILOT PROJECT FOR DEVELOPING AND IMPLEMENTING SUCCESSFUL PREVENTION STRATEGIES FOR TYPE 2 DIABETES	DONOSTIALDEKO ESI / BIDASOAKO ESI / TOLOSALDEKO ESI / OSASUN SAILA / KRONIKGUNE
UE/2014/RADIOMAG	MULTIFUNCIONAL NANOPARTICLES FOR MAGNETIC HYPERTHERMIA AND INDIRECT RADIATION THERAPY	BARRUALDE-GALDAKAKO ESI

UE/2013/ASSEHS	ACTIVATION OF STRATIFICATION STRATEGIES AND RESULTS OF THE INTERVENTIONS ON FRAIL PATIENTS OF HEALTHCARE SERVICES	BARRUALDE-GALDAKAKO ESI / BILBO-BASURTUKO ESI / URIBEKO ESI / OSASUN SAILA / BIDASOAKO ESI / BIOGURUTZETA INS. - EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI / OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / KRONIKGUNE
UE/2012/UNITED4HEALTH	UNIVERSAL SOLUTIONS IN TELEMEDICINE DEPLOYMENT FOR EUROPEAN HEALTH CARE	BILBO-BASURTUKO ESI / BIOEF / BARRUALDE-GALDAKAKO ESI / ARABAKO ESI / BIOGURUTZETA INS. - EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI / SANTA MARINA OSPITALEA / OSATEK / OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / KRONIKGUNE
UE/2010QUANDHIP	JOINT ACTION: QUALITY ASSURANCE EXERCISES AND NETWORKING ON THE DETECTION OF HIGHLY INFECTIOUS PATHOGENS	BILBO-BASURTUKO ESI
UE/2012FemNAT-CD	NEUROBIOLOGY AND TREATMENT OF ADOLESCENT FEMALE CONDUCT DISORDER: THE CENTRAL ROLE OF EMOTION PROCESSING	BILBO-BASURTUKO ESI
UE12/ANGELAB317635	A NEW GENETIC LABORATORY FOR NON-INVASIVE PRENATAL DIAGNOSIS	BILBO-BASURTUKO ESI / BIOGURUTZETAKO INS. EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI / BIODONOSTIA INS. - DONOSTIALDEKO ESI
UE/2013/MASTERMIND	MANAGEMENT OF MENTAL HEALTH DISORDERS THROUGH ADVANCED TECHNOLOGY AND SERVICES - TELEHEALTH FOR THE MIND	LMA LEHEN MAILAKO ARRETAKO ETA ARRETA KOMUNITARIOKO ZUZENDARIORDETZA / GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA / BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA / BARRUALDE-GALDAKAKO ESI / DONOSTIALDEKO ESI / ARABAKO ESI / OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / UPV-EHU / KRONIKGUNE
UE/2011/PALANTE	PATIENT LEADING AND MANAGING THEIR HEALTHCARE THROUGH EHEALTH	OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA / BILBO-BASURTUKO ESI
UE/2013/CANCON	JOINT ACTION-EUROPEAN GUIDE ON QUALITY IMPROVEMENT IN COMPREHENSIVE CANCER CONTROL	OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / OSASUN SAILA
UE/2014/CAPN3_CA	TARGETING CALCIUM HANDLING PROTEINS IN LGMD2A MUSCULAR DYSTROPHY	BIODONOSTIA INST. - DONOSTIALDEKO ESI
UE/2015/EMERGE-JA	JOINT ACTION: EFFICIENT RESPONSE TO HIGHLY DANGEROUS AND EMERGING PATHOGENS AT EU LEVEL	BILBO-BASURTUKO ESI
USA/2014/MJFF10189	STUDY BY NEUROIMAGING OF CARRIERS OF E46K MUTATION OF ALPHASYNUCLEIN GENE AS A MODEL OF IDIOPATHIC LEWY BODY DISEASE	BIOGURUTZETA INST.- EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
UE/2015/I-MOVE-plus	I-MOVE+ INTEGRATED MONITORING OF VACCINES EFFECTS IN EUROPE: A PLATFORM TO MEASURE AND COMPARE EFFECTIVENESS AND IMPACT OF INFLUENZA AND PNEUMOCOCCAL VACCINES AND VACCINATION STRATEGIES IN THE ELDERLY	BIODONOSTIA INST. - DONOSTIALDEKO ESI / OSASUN SAILA
UE/2015/CHRONICITY VALLEY	CHRONICITY VALLEY	BIOEF
UE/2012/HEALTH/IBD-CHARACTER	IBD-CHARACTER: INFLAMMATORY BOWEL DISEASE CHARACTERIZATION	BIOGURUTZETA INST.- EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI
UE/2015/FIC3/SEIZSAFE	SEIZSAFE: A PATIENT-AUTO ADAPTIVE SYSTEM FOR DETECTION, RECORDING AND ALERT TO CAREGIVERS OF NIGHT-TIME SEIZURES, LINKED TO PRIVATE CLOUD PLATFORM FOR PATIENT TRACKING AND BIG DATA	BIOGURUTZETA INST.- EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI

Proiektu aktiboen kanpoko finantzaketa-iturriak

2015eko proiektu aktiboen urte anitzeko kanpoko finantzaketa osatzen duten 44,6 milioi euroek honako jatorri hauek dituzte:

Kanpoko finantzaketako iturriak



- EAP: Euskal Administrazio Publikoa
- EAO: Estatuko Administrazio Orokorra
- EB/Nazioart.: Europako Batzordea – Nazioartekoak
- E. prib.: Erakunde pribatuak
- BEP: Beste erakunde publiko batzuk


Argitalpen zientifikoak

Ondoren deskribatzen diren datuak nazioarteko datu-baseetan indexatutako dokumentuei buruzkoak dira, Scopus datu-basetik aterata daude eta 2014/01/01etik 2014/12/31ra arteko aldiari dagozkionak dira (2015eko datuak elaborazio-aldian daude). Informazio hau Ikerbasquek –Basque Foundation for Science– prestatutako zientzia Euskadin 2015 txostenean dago jasota.

Ateratako datuak baliozkotu ondoren, 971 artikuluko zientifiko erregistratu dira, eta horietatik 942 inpaktu-faktorea duten aldizkarietan argitaratu dira.

Kuartilen arabera banaketa honako hau da:

Cuartil	Nº publicaciones	%
NA	29	3,0%
Q1	460	47,4%
Q2	176	18,1%
Q3	234	24,1%
Q4	72	7,4%
Total	971	100,0%



Inpaktu-faktorea duten artikuluen % 76 nazioarteko aldizkarietan argitaratu dira.


Ikerketarako lagin biologikoen kudeaketa

Euskal osasungintza publikotik datozen ikerketarako lagin biologikoak Euskal Biobankuaren bidez (www.biobancovasco.org) kudeatzen dira. Berorren funtzionamendua Osakidetzarekin, Osasun Sailarekin (populazioen baheketatik datozen laginak) eta Onkologikoarekin dituen hitzarmenek arautzen dute. Euskal Biobankua Osasun Sailak baimendu zuen eta, ondoren, Carlos III.a Osasun Institutuaren biobanku erregistroan inskribatu zen.


Euskal Biobankuak sare-egitura du eta laginak kudeatzen dituzten nodoz osatuta dago. Nodo horiek ospitale nagusietan daude, gainerako ospitaleei estaldura ematen dietela, baita Lehen Mailako Arretan eta Onkologikoan ere, eta nodo koordinatzaile bat BIOEFen.

Euskal Biobankuak, Osakidetzako, Osasun Saileko eta Onkologikoko 108 medikuren elkarlana ez ezik, lagin-hornitzaileen eta 16 nodo-koordinatzailearen lankidetzak izan du. 25 pertsona ditu, guztiak BIOEFek kontratatutako eta osasun-sareko nodoetan banatuak: 12 goi-mailako teknikari, 3 diplomadun, 4 lizentziadun, 7 doktore.

Biobankuak 187 lagin-eskabide kudeatu ditu (79 2015ean hasiak, eta gainerakoak aurreko urteetatik indarrean) eta 27.738 alikuota laga dizkie.




1. grafikoa. Urtean lagatako alikuota kopurua guztira



2. grafikoa. Euskal Biobankuko nodo bakoitzak 2015ean lagatako alikuota kopurua

2015eko 79 eskabide berri horiek 32 ikerketa-zentroren, 30 ospitaleren, 11 unibertsitateren eta 6 enpresa bioteknologikoren eskutik etorri ziren.

Gaur egun, Euskal Biobankuak 50.268 emailetatik datozen 482.072 alikuota kudeatzen ditu.



3. grafikoa. Euskal Biobankuan urtean gehitutako emaileen kopurua



4. grafikoa. Euskal Biobankuko nodo bakoitzak 2015ean gehitutako emaile kopurua

Euskal Biobankuak populazio-bilduma handiak ere kudeatzen ditu, esate baterako, populazioko jaioberrien baheketako laginen soberakinak.

2011ren bukaeraz geroztik, Euskal Biobankuak Burmuinen Dohaintza Programa koordinatzen du, zeina bi jarduera osagarrik eratzen duten:

1. Emaileei edo biobankuaren funtzionamenduan eta dohaintzarako prozeduran interesa duten senitartekoei zuzendutako arreta-ildoak.
2. Jarduketa-protokoloa heriotzaren unerako, ehorztetxe, geriatriko, ospitale, autopsiak egiteko zentro eta laginak biltegiratzeko zentroekin (Arabako Unibertsitate Ospitalea eta Donostiako Unibertsitate Ospitalea) koordinazioan.

Programa existitzen denetik Biobankuak 219 pertsonari erantzun die telefonoz eta horietatik 117k programan sartu ahal izateko baldintzak betetzen zituzten. Gainera 416 ehun neurologiko jaso ditu dohaintzan.

Osasun-zentro bakoitzeko ikerketa-jarduera

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI – Biogurutzeta Institutua

Euskal osasungintzan ikerketa-bolumen handiena duten bi zentroetako bat da: ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 23,95, eta finantzaketa guztiaren % 23,63 (saiakuntza klinikoak kenduta). Zentroak 92 ikertzaile nagusi ditu, eta 10,5 milioi euroko balioa duten 193 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Finantzaketa-iturri garrantzizkoena Estatuko Administrazio Orokorra da, abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 35,39 baita haren ekarpena. Europatik datorren finantzaketa % 10,43 da, Euskal Administrazio Publikoarena % 17,60, Estatuko nahiz Euskadiko beste erakunde publiko batzuen % 9,05, eta erakunde pribatuena % 27,32.

Zentro honetan, 2015ean, 62 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetzako azterlan berri guztien % 22. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 4 zerbitzuak –azterlan guztien % 56– honako hauek dira: onkologia % 24, neurologia % 13, pneumologia % 11 eta lehen mailako arreta % 8. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 53 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 40 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, eta % 7 produktu sanitarioarekin egindako azterlanak edo beste era bateko ikerketa klinikoak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Ondorengo zerbitzu hauetatik datozen bi patente familia aktibo ditu: Dermatologia (eskabidean dagoen patentea «*Larruazaleko melanomaren diagnostiko eta pronostiko metodoa*» Bilbo-Basurtuko ESIrekin lankidetzan garatua, gaur egun negozioazio-prozesuan lizentziadun potentzialekin) eta Anatomia Patologikoko Zerbitzua (Patentea emanda «*Giltzurrenko kartzinomaren markatzailea*»). Era berean, Genetika Zerbitzuaren bi garapen ere baditu, know-how lizentzia eman zaienak («*Ataxiak diagnostikatzeko kit-a*»; eta «*Distrofia miotonikoa diagnostikatzeko kit-a*»; bi garapen horiek ez dira patente bidez babestu baina merkatuan daude jada eta sistemarako itzulkin ekonomikoak sortzen ari dira).

Bestalde, zentroko zorro teknologikoaren parte dira Bizkaiko Lehen Mailako Arretako Ikerketa Unitateko (BLMAIU) eta Biogurutzeta Institutura atxikitako zenbait ikertzailek sortutako software garapen bat («*Xedatu Bizimodu Osasungarria – XBO*» softwarea, nazioko enpresa bati lizentziatu zaiona komertzialki ustia dezan eta marka erregistratua duena) eta Metabolismo Unitatearen beste garapen bat («*Hiperamonemia diagnostikatu eta tratatzeko gida informatizatua*» softwarea).

Emailen ekarpena, guztira, Euskal Biobankuari. Biobankuko emailen % 23,9 zentro honetatik datoz. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera: Hematologia (zentroko emailen % 54), Neurologia (zentroko emailen % 14), Metabolikoak (zentroko emailen % 10), Digestio Aparatua (zentroko emailen % 8), Kirurgia Orokorra (zentroko emailen % 8), Pediatria (zentroko emailen % 3) eta Arnas aparatua (zentroko emailen % 3).

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biogurutzeta-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2015ean 88 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 22,7.

Donostialdeko ESI – Biodonostia Institutua

Euskal osasungintzako zentro ikertzaile handiena da: Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 32,63, eta finantzaketa guztiaren % 36,22 (saiakuntza klinikoak kenduta). 97 ikertzaile nagusi ditu eta 16,1 milioi euroko balioa duten 263 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Zentroaren kanpoko finantzaketan Estatuko Administrazio Orokorren ekarpena da nagusi: orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 37,05. Europatik datorren

finantzaketa % 4,85 da, Euskal Administrazio Publikoarena % 25,15, erakunde pribatuen finantzaketa % 31,16 da eta beste erakunde publiko batzuen ia % 1,79.

Zentro honetan, 2015ean, 67 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetzako azterlan berri guztien % 24. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 4 zerbitzuak –azterlan guztien % 53– honako hauek dira: onkologia % 25, neurologia % 16, erreumatologia % 6 eta lehen mailako arreta % 6. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 40 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira eta % 60 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Hainbat zerbitzutatik datozen lau patente familia aktibo ditu; Digestio Aparatuko zerbitzuak bi patente familia dauzka (eskabidean dagoen patente bat «*Gibeleko gaixotasun polikistikoen tratamendua*» zeinaren babesa Ameriketako Estatu Batuetara eta Europara hedatu den 2015ean eta berorren ustiapen-lizentzia negoziazio-prozesuan baitago nazioarteko enpresa batekin, eta eskabidean dagoen beste patente bat, «*Kolangiokartzinoma diagnostikatzeko in vitro metodoa*», une honetan negoziazio-prozesuan edo bere ustiapen komertzialerako lizentziadun potentzialen bila dabilena); Onkologiako Ikerketa Eremua (eskabidean dagoen Europako patentea «*Mutazioak hautemateko gailua*») eta Neurozientzien Ikerketa Eremua (eskabidean dagoen Europako patentea «*Adrenoleukodistrofiaren diagnostikoa eta tratamendua*», zeina negoziazio-prozesuan edo bere ustiapen komertzialerako lizentziadun potentzialen bila dabilen).

Halaber, Mikrobiologia Zerbitzuaren garapen bat ere badu («*Pneumokokoaren kit serotipatua*» zeina know-how gisa lizentziatu zaion estatu-mailako enpresa bati eta dagozkion arau-baimenak lortzeko prozesuan baitago merkatura irten ahal izateko 2016an zehar.

Emaleen ekarpena, guztira, Euskal Biobankuari. Biobankuko emaleen % 31,48 zentro honetatik datoz. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera: Neurologia (zentroko emaleen % 40), Digestio Aparatua (zentroko emaleen % 38), Obstetria eta Ginekologia (zentroko emaleen % 9), Genetika (zentroko emaleen % 6) Oftalmologia (zentroko emaleen % 5), eta Neuroonkologia (zentroko emaleen % 2).

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biogurutzeta-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2015ean 126 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 32,5.

Bilbo-Basurtuko ESI

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 10,19 garatzen ditu, eta osasun-sareko kanpo-finantziario guztien % 8,15 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 43 ikertzaile nagusi ditu, eta 3,6 milioi euroko balioa dute 81 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 12,50 da. Aipatzekoa da Europatik datorren finantzaketa: % 35,49, eta Euskal Administrazio Publikoarena % 34,58.

Zentro honetan, 2015ean, 71 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetzako azterlan berri guztien % 25. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 4 zerbitzuak –azterlan guztien % 56– hauek dira: erreumatologia % 18, lehen mailako arreta % 17, onkologia % 11 eta kardiologia % 10. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 34 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 58 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, eta % 8 produktu sanitarioarekin egindako azterlanak edo beste era batekoak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Zerbitzu hauetatik datozen bi patente familia aktibo ditu: Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzua (eskabidean dagoen patentea «*Ahoko mukositiari lotutako minaren tratamendua*») eta Dermatologia Zerbitzua, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Dermatologia Zerbitzuarekin lankidetzan (eskabidean dagoen patentea «*Larruazaleko melanomaren diagnostiko eta pronostiko metodoa*», une honetan negoziazio-prozesuan edo bere ustiapen komertzialerako lizentziadun potentzialen bila). Gainera, Pediatria Zerbitzuan sortutako bi software garapen ere baditu

(«Haurrengan asma diagnostikatzeko eta hasierako tratamendurako gida informatizatua» eta «Haurren asmaren tratamendurako eta hurrengo kontroletarako gida informatizatua»); baita Barrualde-Galdakaoko ESIko Ikerketa Unitatearekin batera, Ikerketa Unitatean garatutako software/praktika klinikorako gida bat ere («Aldaka-belaunean esku hartzeko algoritmoa» zeinak baimena lortuta uen Euskadiko Osasun Sistematik kanpoko osasun-erakunde batek erabili dezan).

Emaleen ekarpena, guztira, Euskal Biobankuari. Biobankuko emaleen % 10,20 zentro honetatik datoz. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera: Urologia (zentroko emaleen % 38), Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatua (zentroko emaleen % 17), Digestio Aparatua (zentroko emaleen % 32), Pneumologia (zentroko emaleen % 7), Dermatologia (zentroko emaleen % 3), Neurologia (zentroko emaleen % 2) eta Gaixotasun Immuneak (zentroko emaleen % 1).

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biogurutzeta-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2015ean 29 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 7,5.

Barrualde-Galdakaoko ESI

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 8,6 garatzen ditu, eta osasun-sareko kanpo-finantziazio guztiaren % 5,9 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 39 ikertzaile nagusi ditu, eta 2,6 milioi euroko balioa duten 65 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 27 da. Europatik datorren finantzaketa: % 18,98koa da, eta Euskal Administrazio Publikoarena % 39,19.

Zentro honetan, 2015ean, 19 azterlan kliniko berri jarri dira abian; hau da, Osakidetzako azterlan berri guztien % 7. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 3 zerbitzuak –azterlan guztien % 74– hauek dira: kardiologia % 32, lehen mailako arreta % 26, eta arnas aparatua % 16. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 11 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 84 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, eta % 5 produktu sanitarioarekin egindako azterlanak edo beste era bateko ikerketa klinikoak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software garapenak. Bost software garapen ditu, horietako bi Ospitaleko Gerentziatik zuzenduak («*Aginte Taula Ekonomiko Sanitarioa*» softwarea Espainiako enpresa bati lizentziatua komertzialki ustia dezan eta «*Serious Game Check List Kirurgikoa*» EAEko enpresa bati lizentziatua komertzialki ustia dezan), beste software bat Erizaintzatik zuzendua («*Diabeteserako APPSa*» Appsak deskargatzeko atarietan eskuragarri) eta azkeneko biak Ikerketa Unitatean garatutakoak («*Katarata ebakuntzarako softwarea*» eta «*Aldaka-belaunean esku hartzeko algoritmoa*» azkeneko hau Bilbo-Basurtuko ESIko Ikerketa Unitatearekin elkarlanean. Biek baimen-lizentzia daukate sinatuta, Euskadiko Osasun Sistematik kanpoko osasun-erakundeek erabili ahal dezaten).

Emaleen ekarpena, guztira, Euskal Biobankuari. Biobankuko emaleen % 8,9 zentro honetatik datoz. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera Galdakao-Usansoloko Ospitalean: Metabolikoak (zentroko emaleen % 31), Obstetrizia eta Ginekologia (zentroko emaleen % 24), Pneumologia (zentroko emaleen % 19), Arnas aparatua (zentroko emaleen % 11), Kirurgia Orokorra (zentroko emaleen % 10) eta Hematologia (zentroko emaleen % 6).

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biogurutzeta-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2015ean 15 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 3,9.

Arabako ESI

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 8,19 garatzen ditu, eta osasun-sareko kanpo-finantziario guztiaren % 7,5 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 32 ikertzaile nagusi ditu, eta 3,3 milioi euroko balioa duten 66 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 54,50 da. Europatik datorren finantzaketa: % 10,37koa da, Euskal Administrazio Publikoarena % 28,07koa, eta erakunde pribatuena, berriz, % 6,40koa.

Zentro honetan, 37 azterlan kliniko berri jarri dira abian 2014an; hau da, Osakidetza azterlan berri guztien % 11,90. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera, azterlan gehien egiten dituzten 6 zerbitzuak – azterlan guztien % 56,77 – hauek dira: Hematologia % 16,22, Kardiologia % 13,51, Neurologia % 10,81, eta Anestesia eta Bizkorketa, Pediatria eta Erradioterapia, % 5,41 bakoitzak. Analisia azterlan mota kontuan hartuta egiten badugu, % 18,92 sendagaiekin egindako saiakuntza klinikoak dira, % 62,16 baimendu osteko azterlanak eta baimendu aurrekoak, eta % 18,92 produktu sanitarioarekin egindako azterlanak.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software garapenak. Hainbat zerbitzutatik datozen hiru patente familia aktibo ditu; Loaren Unitatea (nazioartean babes zabala duen patentea, «*Lotan ahoz gorako etzanera eragozteko gailua*», 2015ean baimenak jaso dituen merkatura irteteko –2016ko lehen hiruhilekoan irtetea aurreikusten da); Osasun Mentaleko Ikerketa Unitatea (eskabidean dagoen patentea «*Agente antipsikotikoen tratamenduaren erantzuna auresateko kit-a*», zeina negoziazio-prozesuan edo ustiapen komertzialerako lizentziadun potentzialen bila dabilen) eta Medikuntza Nuklear eta Erradiofisikoaren Zerbitzuarena (eskabidean dagoen patentea, «*Biopsiarako kit-a*», une honetan baliozkotze klinikoaren prozesuan dagoena). Bestalde, bi software garapen ditu, Ikerketa Unitatearen ekimenez: («*SMSsalud*» softwarea, zeina 2013an erregistratu zen marka gisa, eta «*AKTIdiet*» softwarea, zeinaren marka erregistratzeko eskabidea 2015ean egin zen eta ebazteko fasean dagoen. Bi garapenak EAEko enpresa bati lizentziatuak daude ustiapen komertziala egin dezan).

Emaleen ekarpena, guztira, Euskal Biobankuari. Biobankuko emaleen % 11,54 zentro honetatik datoz. Zerbitzu mediko-kirurgikoen arabera: Loaren Trastornoko Diziplina arteko Unitatea (zentroko emaleen % 34), Kardiologia (zentroko emaleen % 19), Obstetrizia eta Ginekologia (zentroko emaleen % 18), Psikiatria (zentroko emaleen % 8), Genetika Unitatea (zentroko emaleen % 10), Infekziosoak (zentroko emaleen % 6) eta Gaixotasun Metabolikoak (zentroko emaleen % 5).

Osakidetza I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biogurutzeta-Kronikagune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2015ean 25 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 6,4.

Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 0,87 garatzen du, eta osasun-sareko kanpo-finantziario guztiaren % 1,33 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 3 ikertzaile nagusi ditu, eta 600.000 euroko balioa duten 7 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Estatuko Administrazio Orokorraren ekarpena orain abian dauden proiektu eta eskabide guztietarako zentroak lortutako guztizkoaren % 52,05 da. Euskal Administrazio Publikoaren finantzaketa % 41,91koa da, eta erakunde pribatuena % 6,04koa.

Emaleen ekarpena, guztira, Euskal Biobankuari. Biobankuko emaleen % 12,87 zentro honetatik dator. Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroak 6.470 emaleen kontrol osasuntsuetako laginak ekartzen dizkio Biobankuari.

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biogurutzeta-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2015ean 7 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 1,8.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

Ikerkuntzarako proiektu eta laguntza guztien % 1,49 garatzen du, eta osasun-sareko kanpo-finantziario guztiaren % 1,26 lortzen du (saiakuntza klinikoak kenduta). 9 ikertzaile nagusi ditu, eta 0,5 milioi euroko balioa duten 12 proiektu daude abian ikertzaile nagusi horien gidaritzapean.

Finantzaketaren jatorriari dagokionez, nabarmentzekoa da atzerriko finantzaketa, ez da alferrik orain indarrean dauden proiektu eta eskabideen % 42,35; ondoren datoz Euskal Administrazio Publikoa % 33,51rekin eta Estatuko Administrazio Orokorra % 22,53rekin.

Jabetza industrialeko eskubideak eta software-garapenak. Hiru software-garapen ditu. Horietako bi Osakidetzako Sistema Informatikoen Zuzendariordetzari dagozkio («*Estazio kliniko*» softwarea eta «*Naia Health Care*» softwarea. Bi software garapenak EAEko bi enpresari lizentziatu zaizkie komertzialki ustia ditzaten). Hirugarren garapena Etengabeko Prestakuntzako Unitateari dagokio («*Zu eta kronikotasuna*» prestakuntza-programa zeina Espainiako enpresa bati lizentziatu zaion, komertzialki ustia dezan).

Osakidetzako I+G+b erakundeek (BIOEF-Biodonostia-Biogurutzeta-Kronikgune) kudeatutako I+G+b-rako laguntza finalisten kargura kontratatutako pertsonak: 2015ean 2 pertsona egon dira kontratatuta; hau da, guztizkoaren % 0,5.

Berrikuntza

Berrikuntza-proiektuak eta gaikako eremuak

BOTTOM - UP 2015	
Integrazioa	40
Prebentzioa eta sustapena	21
Paziente Aktiboa	8
Rolak	7
Sendagaien erabilera	10
Soziosanitarioa	7
Beste	3
Guztira	96

Berrikuntza antolakuntzan eta kudeaketan

- Osasun-arloko Berrikuntza Plataforma (PINNSA): Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak sustatutako ekimena, Carlos III.a Osasun Institutuarekin eta Autonomia Erkidegoekin. Helburua osasun-zerbitzuen elkarlana sustatzea eta esperientziak partekatzea da.
- HOBE+: berrikuntza foroa Osakidetzaren barruan erronkak eta ideiak sortzeko eta zehazteko. Bere xedea da antolakuntza-aldaketa, produktu edo zerbitzu modura hautemandako proposamenak gauzatu daitezela.
- Ekintza Plana Berrikuntzan: berrikuntzaren kudeaketa hobetzea prozesu erkide batzuk eta partekatutako tresna bat ezartzearen bitartez, horrela, berrikuntza-jardueren ezagutza errazteaz gainera, mota horretako jardueri buruzko erabakiak hartzea eta planteamendu estrategikoak egitea ahalbidetu nahi da.
- ITEMAS plataformaren «Berrikuntza sostengatzeko unitateen egituraketa» lantaldea: oinarriak definitzea Berrikuntza Unitateak (BU) sortzeko, eta gida bat sortzea haien akreditazio eta sorkuntzarako. Era berean, ITEMASeko kideen BUak akreditatzea bilatzen du.
- Bultzada bat ematea herritarrek osasun-gaietan parte har dezaten Euskadiko Osasun Sistema Publikoan (EOSP): Osasun Sailak, Osakidetzak eta BIOEFek garatutako ekimena da. Hainbat interes-taldetatik datozen pertsonaz osatutako lantaldeen dinamika batetik abiatuta, 2015ean, EOSPren egoera aztertu da herritarrek osasun-gaietan parte hartzearen ikuspegitik, eta gero abiapuntuko egoera hobetuko duen ekintza-plan bat proposatu da. Ekintza Plan hori 2016an garatuko da.
- Adimendu-memorandumak Europako beste herrialde eta eskualde batzuekin: idazkaritza teknikoak memorandumak jarraipenerako (gaur egun Ipar Irlanda, Eskozia eta Akitania), hor sartzen dira, beste batzuen artean, Europako finantzaketa-deialdietara aurkeztea, ikasketa-ikustaldiak antolatzea eta elkarren artean ezagutza trukaketa.
- IntegraSarea: Osakidetzak, Osasun Sailak, BIOEFek eta Innobasquek garatutako proiektua Osakidetzan integrazioaren bidetik aurrera egiteko. Lankidetzaren sare bat da non 18 zerbitzu-erakundeetako 90 profesional baino gehiagok parte hartzen duten bost arlo edo lan eremutan oinarrituta.

- Erizaintzari buruzko gogoeta estrategikoa: Osasun Sailaren eta O+Berriren proiektua Osakidetzako erizainen lantalde bat sortu eta erizaintzak osasun-sisteman jokatzeko duen rolaz eztabaidatzeko, bereziki lehen mailako arretan; proiektu honetan sareko 15 erizainek hartu zuten parte.
- IEMAC: IEMAC/ARCHO osasun- eta gizarte-erakundearen autoebaluaziorako tresna da, kronikotasuna kudeatzeko ereduaren ezarketa-mailari dagokionez. 16 saio egin dira, sistematikoki, 14 zerbitzu-erakundetan; aipatutako saioetan sare guztiko 150 pertsona baino gehiagok hartu dute parte eta Erakundeari buruzko hainbat hobekuntza-eremu identifikatu eta adostu dira.

Berrikuntza koordinazio soziosanitarioan

- InterRAI-CA tresnaren hedapena: RAI lizentzien izendapena eta banaketa, sostengua tresnaren inplementazio-prozesuan eta erabileran 31 osasun-zentrotan, 5 larrialdi-zerbitzutan, ospitaleko harrera-zerbitzu 1ean, 31 oinarritzko udal-zerbitzutan, 3 foru-aldundietan eta erakunde pribatu batean.
- InterRAI-CAren ezarketaren definizioa Osabide Globalean eta Gizarte.net-en (etorkizuneko historia soziosanitarioa): interoperabilitateko aditu taldearen eraketa eta Osabide Global eta Gizarte.net informazio-sistemetan balorazio soziosanitariorako tresna (InterRAI-CA) txertatzearen eraginkortasuna aztertzea. Ordezko aukeren azterketa InterRAI-CA tresna eskala handian ezartzeko aukerei buruz edota Osakidetzan ad hoc garatutako erreminta baten barneko garapena lantzearen inguruan.
- Etorbizi Programa: 38 ikerketa-proiekturi buruzko txostenen elaborazioa. Dokumentazioa eguneratzea (datu-baseak eta txostenak), jarraipeneko txostena egitea; eta artxibo fisiko eta elektronikoaren itxierako auditoria.
- ex. ante/ex. post ebaluazio-tresna. Ikerketa-proiektu soziosanitarioak eta inplementazio-potentzialaren txostena: berrikuspen bibliografiko ez sistematikoa, proiektuen inplementazio-potentzialaren ebaluazio-erremintaren eraikuntza, 38 ikerketa-proiektuen ebaluazio sistematikoa eta inplementazio-potentzialaren ebaluazio-txostenaren elaborazioa.
- Osasun Mentaleko Aholku Batzordearen (OMAB) trastorno mental larriko taldea (TML): aditu taldearen eraketa, idazkaritza teknikoa taldearen bileretan eta materialen prestaketa TMLren definizio adostura iristeko; era berean, berorrekin lotzen diren esku-hartze ereduaren definizioa Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren esparruan.
- Osabide Globalaren hedapena egoitzetan: Osabide Globalaren ezarketa 30 egoitzatan eta hitzarmena prestatzea Euskal Sarearen konektibitatea lortze aldera.
- Eragiketa-plan soziosanitarioak: hiru eragiketa plan (LH bakoitzeko bat); horretarako, lurraldeko koordinatzaile soziosanitarioen lantaldearen antolakuntza eta dinamizazioa eta euskarri teknikoa eragiketa planak elaboratzeko.
- Zaintzaileen arretarako programa: beharrianak hautemateko txostenaren zirriborroa mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileetan.
- Zorro soziosanitarioaren dekretuaren zirriborroa prestatzea: zorro soziosanitarioaren dekretuaren zirriborroa.
- Arreta soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren funtzionamenduko dekretuaren zirriborroa prestatzea: ASSEKren funtzionamenduko dekretuaren zirriborroa.
- Gaixotasun bakanen lantaldeak: gaixotasun bakanak dituzten pertsonetikiko lantaldearekin lankidetzatopaketak antolatzea eta dinamizatzea, gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin eta etorkizuneko erronkak aurreikustea.
- Zainketa Aringarrien dokumentuari ikuspegi soziosanitariotik ekarpenak egitea: lan saioa elkarrekin, dokumentua berrikusi eta ikuspegi soziosanitariotik ekarpenak egin Osakidetzako zirriborroari.
- Programa – kontratuari ekarpenak ikuspegi soziosanitariotik: lan saioa elkarrekin eta ikuspegi soziosanitarioko ekarpenak 2016ko programa – kontratuari.

Nazioartekoa

- Leading Health Systems Network (LHSN): Euskadiko pazientearen txostena-segurtasuneko aginte taula, pazientearen segurtasunari buruzko alderatze-txostena herrialde kideen artean. Gorabeheren albiste emateko sistemaren txosten-galdeketa. Ezagutza trukatzeko mintegi birtualetan izandako parte-hartzea.

Kanpoko eragileekiko lankidetzak

- NHSko AQUA (Advancing quality Alliance)
- Lankidetzak IFIC-ekin (International Foundation of Integrated care): Zeelanda Berrira bisita, Bartzelonan IFIC-en biltzarra egin baino lehen
- Lankidetzak IFIC-ekin: Integrazio-sareei buruzko interes-taldea
- Edinburgon IFIC-en biltzarrean parte hartzea eta ahozko bi aurkezpen egitea
- Lankidetzak ituna formalizatzea Aqua-rekin eta IFIC-ekin
- Integrazio-sareei buruzko interes-taldea abian jartzea, O+Berri aitzindari dela
- IntegraSareari buruko komunikazio bat aurkeztea 2016ko Bartzelonako IFIC-en biltzarrean.
- InterRAI CA-ren hedapenari buruzko komunikazio bat aurkeztea IFIC-en

Zabalkundea eta gaikuntza

- Masterra Osasun Kudeaketan 2015-2016.
Ezagutza trukea Osasun Saileko, Osakidetzako eta zenbait zerbitzu-erakundetako profesionalen eta masterreko ikasleen artean.
Bilerak, bisitak eta harremanak osasun-sistemaren eta ikasleen artean, balizko intereseko albisteak barruko eta kanpoko testuinguruan.
2. saioa ematea: Osasungintza Sistemak.
Bisita BIOEFera, Saileko Zuzendaritzetara egiten diren bisiten esparruan.
Diseinua, koordinazioa eta lagun egitea osasun-sisteman ikasleen praktika-aldian eta bisitetan (Osasun Saila, Osakidetzako zerbitzu-erakundeak eta erlazionatutako beste erakunde batzuk).
- Euskadiko I. Topaketa Soziosanitarioa: Euskadiko I. Topaketa Soziosanitarioaren antolakuntza (programa, txostengileak eta azpiegitura teknikoak barne). Proceeding-ak, zabalkunde-dokumentuak eta Etorbizi deialdiko inpaktu handiena duten 10 proiektuen aurkezpenak.
- Informazio-jardunaldiak InterRAI-CAren ezarketan parte hartu dutenentzat: 4 informazio-saio eskaintzea proiektuan parte hartu dutenei. Prestakuntza-materialen sorkuntza. Materialak zabaltzea osasun-arloko zerbitzu-erakundeei, foru aldundiei eta udalei.
- Prestakuntza-jardunaldia InterRAI-CAren erabiltzaileentzat: birziklatze saio bat gauzatuko da ikerketa-proiektuan nahastutako profesionalentzat. 7 prestakuntza-jardunaldiren antolakuntza (datu-baseen sorkuntza, parte-hartzaileen bilaketa eta prestakuntza-materialen elaborazioa). Erabiltzaileentzako prestakuntza-saio bat egitea.
- International Foundation for Integrated Care (IFIC) erakundeari egindako komunikazioaren erregistroa. InterRAI-CAri buruzko komunikazio laburraren online erregistroa.
- «Euskadiko Osasun Sisteman berrikuntzak eginez» jardunaldia. Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko XXI. Europako Astea (2015eko urriak 29).
 - InterRAI-CAri buruzko komunikazio laburreko aurkezpena berrikuntza soziosanitarioko elementu gisa.
 - Osasun-sistema guztian herritarrek parte hartzea bultzatzeko proiektuaren aurkezpena.


- Arreta Integratuko Jardunbide Egokien II. Jardunaldian parte hartzea.
 - InterRAI-Cari buruzko komunikazioaren aurkezpena balorazio soziosanitariorako tresna gisa. Komunikazio Onenaren Saria.
- «Berrikuntza Euskadiko Osasun Sisteman» jardunaldiaren antolakuntza, 2015eko maiatzaren 22an, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean.
Antolatutako jardunaldiaren helburua Euskadiko Osasun Sisteman lortutako hainbat berrikuntza kasu arrakastatsu aurkeztea eta zabaltzea da. EOSPko osasungintzako eta osasungintzakoak ez diren profesionali zuzendua.
- «Berrikuntza herritarren osasungintzako parte hartzean» jardunaldi eta tailerraren antolakuntza, 2015eko azaroaren 20an Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean.
Jardunaldiaren antolakuntza eta sentsibilizazio-tailerra, EOSPko berrikuntzako kudeatzaile eta teknikariei zuzendua, berrikuntza –herritarren parte-hartzearen arloan zehazki– gai hartuta.
- Sentsibilizazio orokorra herritarrek osasunean izan beharreko parte-hartzeari buruz (ekimen guztian zehar): topaketak Osakidetza ZEEkin eta hainbat jardunalditan parte hartzea:
 - Ikastaroa Bilbo-Basurtuko eta Ezkerraldea-Gurutzetako EOEn (2015eko urrian)
 - Prestakuntza Donostialdean (2015eko urrian)
 - Euskalit (2015eko urrian)
 - Asistentziaren kalitatea Galdakaon (2015eko azaroan)
 - Berrikuntzari buruzko jardunaldia Gurutzetan (2015eko azaroan)
- Diagnostikoa eta ekintza-planaren proposamena, 2016an inplementatzeko (2015eko abendurako aurreikusia).
- «World cafe» motako jardunaldia komunikatu, hezi eta sentsibilizatzeko xedez (2016ko otsail-martxorako aurreikusia).
- EITB Maratoia: koordinazioa eta solaskidetza osasun-sistemaren eta EITBren artean.

Jabetza intelektualeko erregistro aktiboak

2008ko urriaren 1eko datarekin BIOEFen eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren artean izenpetutako akordioaren indarrez, BIOEF fundazioak kudeatzen ditu Osakidetza garatutako ikerketa eta berrikuntza jardueretatik eratorritako emaitzen jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen babesa eta transferentzia.

2015/12/31n, BIOEFek kudeatutako Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren (EOSP) zorro teknologikoak 13 garapen teknologiko ditu (10 patente familia aktibo eta sekretu industrial peko 3 asmakuntza – know how) eta beste 15 garapen IKT osasuna eremuan (3 marka erregistro).

Ondorengo grafikoetan garapenen laburpen bat erakusten da, duten tipologiaren eta helburuaren arabera:



Garapenak tipologiaren arabera

Garapenak helburuaren arabera

Ondoren xehekiago banakatuta agertzen dira garapenak, banaka izendatuta eta alboan garapen mota, helburua, zein zentro eta zerbitzutakoa den eta berorren egoera bai babesari eta bai ustiapen komertzialari dagokionez:

GARAPENA	GARAPEN MOTA	HELBURUA	EOSP ZENTROA / ZERBITZUA	BABESA ETA USTIAPEN KOMERTZIALA
Multimediako ikastaroa triajeaz: triajeiko entrenamenduak	IKT osasuna	Prestakuntza	Osakidetzako Larrialdiak	<i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Lotan ahoz gorako etzanera eragotzeko gailua	Materialak eta gailuak	Prebentzioa	Arabako ESI - Bioaraba / Loaren Unitatea	Patente nazionala hainbat herrialdetara hedatuta: Emana <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Estazio klinikoa (softwarea)	IKT osasuna	Osasun Kudeaketa	Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia / Zuzendariordetza Informatikoa	<i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Giltzurruneko kartzinomaren markatzailea	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI - Biogurutzeta / Anatomia Patologikoa	Patente nazionala: Emana
Aginte-taula ekonomiko sanitarioa (softwarea)	IKT osasuna	Osasun Kudeaketa	Barrualde-Galdakaoko ESI/Gerentzia	<i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Xedatu Bizimodu Osasungarria (softwarea)	IKT osasuna	Osasunaren autozaintza	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI - Biogurutzeta / BLMAIU	Erregistratutako Marka Nazionala. <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Hiperamonemiari buruzko gida informatizatua	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI - Biogurutzeta/ Metabolismo Unitatea	Jabetza Intelektualeko Erregistroa
Haurren asmaren hasierako tratamendurako gida informatizatua	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Bilbo-Basurtuko ESI / Pediatria Zerbitzua	Jabetza Intelektualeko Erregistroa
Haurren asmaren hurrenez hurrengo tratamenduetarako gida informatizatua	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Bilbo-Basurtuko ESI / Pediatria Zerbitzua	Jabetza Intelektualeko Erregistroa
Pneumokokoaren kit serotipatua	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Donostialdeko ESI - Biodonostia / Mikrobiologia Zerbitzua	<i>Know How lizentziaren akordioa sinatuta</i>
Gibeleko gaixotasun polikistikoen tratamendua	Sendagaia - Farmazia	Tratamendua	Donostialdeko ESI - Biodonostia / Digestio Ap. Zerbitzua	Patente Nazionala hainbat herrialdetara hedatuta: Eskatuta <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa negoziatzen</i>
Prestakuntza programa «Zu eta kronikotasuna»	IKT osasuna	Prestakuntza	Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia / Etengabeko Prestakuntza	<i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>

GARAPENA	GARAPEN MOTA	HELBURUA	EOSP ZENTROA / ZERBITZUA	BABESA ETA USTIAPEN KOMERTZIALA
SMSALUD	IKT osasuna	Prebentzioa	Arabako ESI - Bioaraba / Arabako Ikerketa Unitatea	Erregistratutako Marka Nazionala Jabetza Intelektualeko Erregistroa eskatuta <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Distrofia miotonikoa diagnostikatzeko kit-a	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI - Biogurutzeta / Genetika Zerbitzua	<i>Know How lizentziaren akordioa sinatuta</i>
Ataxiak diagnostikatzeko kit-a	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI - Biogurutzeta / Genetika Zerbitzua	<i>Know How lizentziaren akordioa sinatuta</i> <i>Merkatuan</i>
Serious game check list kirurgikoa	IKT osasuna	Prestakuntza	Barrualde-Galdakaoko ESI/Gerentzia	<i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Ahoko mukositisarekin lotura duen minaren tratamendua	Sendagaia - Farmazia	Tratamendua	Bilbo-Basurtuko ESI / Anestesiologia eta Bizkorketa Zerbitzua	Patente nazionala PCT hedadurarekin: Eskatuta <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa negoziatzen</i>
Diabeteserako APPSa	IKT osasuna	Osasunaren autozaintza	Barrualde-Galdakaoko ESI / Erizaintza	<i>Eskuragarri deskargarako atarietan</i>
Larruazaleko melanomaren diagnostiko eta pronostiko metodoa	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI - Biogurutzeta eta Bilbo-Basurtuko ESI / Dermatologia Zerbitzuak	Patente nazionala hainbat herrialdetara hedatuta: Eskatuta <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa negoziatzen</i>
Aldaka-belaunean esku hartzeko algoritmoa	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Barrualde-Galdakaoko ESI Bilbo-Basurtuko ESI / Ikerketa Unitateak	<i>Erabiltzeko Baimena sinatuta</i>
NAIA HEALTH CARE	IKT osasuna	Osasun Kudeaketa	Osakidetzako Informatika Zuzendariordetza	<i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa sinatuta</i>
Katarata-ebakuntzarako softwarea	IKT osasuna	Praktika klinikoko gidak	Barrualde-Galdakaoko ESI / Ikerketa Unitatea	<i>Erabiltzeko Baimena sinatuta</i>
Agente antipsikotikoen tratamenduaren erantzuna auresateko kit-a	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Arabako ESI - Bioaraba / Osasun Mentaleko Ikerketa Unitatea	Patente nazionala: Eskatuta <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa negoziatzen</i>
Mutazioak hautemateko gailua	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Donostialdeko ESI - Biodonostia / Onkologia Ikerketa	Europako patentea: Eskatuta

GARAPENA	GARAPEN MOTA	HELBURUA	EOSP ZENTROA / ZERBITZUA	BABESA ETA USTIAPEN KOMERTZIALA
Kolangiokartzinoma diagnostikatzeko in vitro metodoa	Bioteknologia eta diagnostiko molekularra	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Donostialdeko ESI - Biodonostia / Digestio Ap. Zerbitzua	Patente nazionala: Eskatuta <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa negoziatzen</i>
Biopsiarako kit-a	Materialak eta gailuak	Diagnostikoa/ Pronostikoa	Arabako ESI - Bioaraba / Medikuntza Nuklear eta Erradiofisikoaren Zerbitzua	Patente nazionala: Eskatuta
Adrenoleukodistrofiaren diagnostikoa eta tratamendua	Sendagaia - Farmazia	Tratamendua	Donostialdeko ESI - Biodonostia / Neurozientzietako Ikerketa Unitatea	Europako patentea: Eskatuta <i>Ustiapen Komertzialerako Akordioa negoziatzen</i>
AKTIdiet	IKT osasuna	Osasunaren autozaintza	AUO - Bioaraba / Arabako Ikerketa Unitatea	Erregistratutako Marka Nazionala <i>UstiapenKomertzialerako Akordioa sinatuta</i>


Innosasun Programa

Osasun Sailak eskaintzen duen tresna bat da, enpresetan berrikuntza-sistema sostengatzeko, Euskadi 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren barruan (ZTBP). Laguntza-mekanismo bat da, alegia. Haren bidez, osasun-sistemaren eta enpresa-sektorearen (eta erlazionatutako eragileen) arteko elkarrekintza egituratzen da, berrikuntzaren arloan azken hauen beharrezanez erantzuna emanez.

INNOSASUN programak hirugarrenen beharrezanez erantzuten die, batez ere enpresei eta erlazionatutako EAEko beste agente batzuei, osasun-sistemaren gaitasun, know how eta lankidetzako sare zabalarik esker ad hoc sostengua emanez; izan ere, proben ingurune erreal edo living lab modura ez ezik, berrikuntza irekiko ekosistema gisa ere jardun baitezake. Programak kontaktu eta beharrezanez bideratze kudeaketa egiten du (BIOEFek koordinatutako leihatila bakar baten bidez, baldin eta eskatzaileak kanalak jada ezarrita ez baditu edo koordinazio globala behar badu), honako gai hauekin lotuta:

- Aholkularitza eta orientazio klinikoa
- Frogapeneko azterlan klinikoak
- Lagin biologikoen kudeaketa I+G+b proiektuetarako
- Datuen hornidura
- Beharrezanez beste sostengu-mekanismo batzuetara bideratzea EOSPren barruan.

1. grafikoa. INNOSASUNen jarduerari buruzko datuak, 2015



2015ean, INNOSASUNek 92 sostengu-eskabide jaso ditu guztira, 49 erakundetatik; horietatik 64 eskabide Euskadiko 38 erakunderenak izan dira (% 71,1 ETEak, % 15,8 ETEak ez diren enpresak, % 10,5 Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea-ZTESko agenteak eta % 2,6 enpresa sektoreko beste mota bateko agenteak, adibidez klusterrak edo enpresen sustapenerako agentziak).

Aipatutako 64 sostengu-eskabideetatik, 27 aholkularitzakoak izan dira, 15 frogapeneko azterlan klinikoak, 13 biobankuak kudeatutako lagin eskabideak, eta 6 eskabide osasun-sistemaren barruan bideratu dira (adibidez, Osasun Ikerkuntzarako Institutuetara, I+G proiektuak gauzatzeko).

Osakidetzan 2015ean egikaritutako frogapeneko azterlan klinikoaren txosten xehatua:

BIOEFek, Innosasan programaren esparruan, produktu berrien edo hirugarrenek garatutako zerbitzuen efikazia-eraginkortasun-efizientzia eta/edo kostu eraginkortasun edo inpaktu ekonomikoa frogatzeko azterlan klinikoak kudeatzen eta koordinatzen ditu. Jarduera hori, funtsean, Biozientzien sektoreko enpresei sostengua ematera zuzenduta dago; izan ere, I+Gtik abiatuta garatutako produktu berriak –eta berritzaileak– baliozkotzea eta merkatura ateratzea errazten die.


EAEko erakundeekin elkarlanean gauzatutako frogapeneko azterlan klinikoaren finantzaketaren % 71 lehiaketa-deialdien bitartez lortutako funts publikoetatik dator eta gainerako % 29k, aldiz, jatorri pribatuko finantzaketa du. Lehiaketa-jatorria duen finantzaketaren % 60k Estatuko Administrazio Orokorrean (EAO) du jatorria, eta % 40k Eusko Jaurlaritzaren Administrazioan (EJA).

Frogapeneko azterlan horietan Osakidetzako 6 ESIk hartzen dute parte: Bilbo-Basurtuko ESI, Barakaldo-Sestaoko ESI, Goierri-Urola Garaiko ESI; Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESI, Arabako ESI eta Donostialdeko ESI; gainera, 6 ospitale nagusik eta Lehen Mailako Arretako 11 osasun-zentrok ere parte hartzen dute. Halaber, osasungintzako 122 profesionalek hartu dute parte azterlan horietan; tartean egon dira mediku espezialistak, lehen mailako arretako medikuak eta erizainak.

Frogapeneko azterlanetan parte hartu duten Osakidetzako zerbitzuak ondorengo espezialitate hauetakoak dira: Digestio Aparatua, Erreumatologia, Errehabilitazioa, Endokrinologia eta Nefrologia; baita Biogurutzeta Institutuko – Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko eta Bilbo-Basurtuko ESIko Ikerketa Unitateek ere.

Honako hauek dira ebaluatutako produktuak: % 20 sistema berriak, bioteknologiako produktuak eta diagnostiko molekularra; % 33 material eta gailu berriak; % 40 sendagaiak eta % 7 IKT osasuneko sistemak.

Frogapeneko azterlanen finantzaketaren jatorria




Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia


Ikerketa eta berrikuntzako «Plan Zuzendaria»

Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren osasun-arloko ikerketa eta berrikuntzarako lehen estrategiaren elaborazioa da eta berorren aurkezpen orokorra 2016ko otsailerako dago aurreikusita.

Osasun Sailaren Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategiaren egitekoa eta ikuspegia:



Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020 **lau ardatzen** inguruan egituratzen da (Eragina, Integrazioa, Pertsonak eta Baliabideak); ardatz horien xedea **lau helburu estrategiko** edo nagusi betetzea da.



Argitalpen korporatiboak

Komunikazio Medikoko Unitatea

1. Ikus-entzunezkoen ekoizpena

Bideogintza	78
DVD edukien sorkuntza eta egiletza	93
Bideo digitala edit., prozesatu eta kodifikatzea	490
Multimedia aurkezpenen garapena	26
Legezko kopia eta bikoizketa	274
Material grafikoa diseinatzea eta lantzea	32
Irudiaren tratamendu eta konposizio digitala	1.542

2. Aholkularitza

Komunikazioko aholkularitza	34
Prestakuntza eta irakaskuntza	37
Laguntza teknikoa	102

Argitalpen bideografikoak

Eduki mediko eta sanitarioko 78 bideo egin dira; % 4 handitu da balio erantsi handiko ikus-entzunezko edukien sorkuntza-bolumena, 2014ko ekoizpenarekin alderatuta. Ekoizpenaren parterik handiena Bizkaiko zentroei dagokie, Gurutzeta eta Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak nabarmentzen direla. Hona hemen gaika banakatuta:

Teknika kirurgikoa	48
Sarbide minimoko kirurgia	26
Osasun-hezkuntza	1
Graduondoko irakaskuntza	1
Kudeaketa, marketina eta komunikazioa	1
Osasunerako hezkuntza	1

«Osasun Zientzietako Argitalpen Elektronikoen Funtseko» ikus-entzunezko erregistroen kopurua **1.672koa** izan da.

2015ean 78 bideo ekoitzi dira Komunikazio Medikoko Unitatean; hau da, % 4 gehiago. Gainerako jarduera-adierazleak egonkor mantentzen dira. Askoz garrantzitsuagoa da Zuzendaritza Nagusitik eta bere komunikazio talde korporatibotik argi eta garbi finkatutako joera; hau da, zerbitzu, zentro edo programek sustatutako produktu instituzionalak lehenestea, arlo mediko soila gaingitzen duen inpaktuarekin osasun-interes zabalagoa izateko. Erakundean eta herritarrarengan askoz zentratuago dagoen ekoizpen-ildo horrentzat lagungarri izango da laster abian jarriko den TB kanala, zeinak gure informazio eta osasun-zerbitzuak hurbilduko dizkien interesa duten guztiei.